



EBAZPENA, 2018KO URRIAREN 31KOA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIARENA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA 2019-2021 ALDIRAKO.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikulua ezarritakoaren arabera, diru-laguntzen ezarpena proposatzen duten administrazio publikoetako organoek, aldezturik, diru-laguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte berau aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta haiek finantzatzeko iturriak ere.

Plan horrek eraginkortasuna eta efizientzia handitzen direla bermatu nahi du, eta helburu du gardentasuna sendotzea dagokion jarduera-eremuan. Ondorioz, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen politika planifikatzeko tresna izango da. Izan ere, erakundeak, diru-laguntzak emanez, helburu hauek lortu nahi ditu: sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, izateko eta zuzenbidezko berdintasuna bete-betean lortzeko dauden oztopoak kentzea, eta sexuan oinarritutako diskriminazio modu oro deuseztatzea.

Halaber, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren gainerako plangintzara nola biltzen den aztertu eta gero, zera erabaki da: Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren gehigarri gisa egituratzea.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoak bost arlo nagusi ditu: emakumeen ahalduzko berdintasuna sustatzea, elkartegintzaren bidez, baita haien aitortzea ere; erakunde publiko eta pribatuetan berdintasuna sustatzea eta ezartzea, planak onartuz; emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea, sentsibilizaziorako jarrerak sortzen dituzten erakunde eta elkartei lagunduz; azterlanak eta ikerketa sustatzea, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko jarduerak aitortzea.

Azkenik, kontuan hartu behar da plana programatikoa dela, ez arautzailea, eta, beraz, haren edukia berez ez duela sortzen ez eskubiderik, ez betebeharririk. Ondorioz, plana eraginkorra izan dadin, diru-laguntzen hainbat ildo abiarazi behar dira, ekitaldi bakoitzean erabilgarri dagoen aurrekontua kontuan hartuta, besteak beste.

Azaldutako guztiagatik, honako hau



EBAZTEN DUT

Lehena.– Eranskinean jasota dagoen Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

Bigarrena.– Gobernu Kontseiluari jakinaraztea plana onartu dela, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen webgunean argitara dadila agintzea.

Hirugarrena.– Plana gauzatzera bideratutako urteko zuzkidura ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren legeetan jasotakora egokituko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 31.

IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.



ERANSKINA

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2019-2021 ALDIRAKO

1. Sarrera

Plan estrategiko hau onartzen da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluan xedatutakoa betez. Agindu horrek diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten administrazio publikoetako organoei eskatzen die aurretiaz plan estrategiko batean zehaztu dezatela zer helburu lortu nahi diren eta zer ondorio sortuko diren hura aplikatzean, zer epe behar den hori lortzeko, zer kostu aurreikusten diren eta zer finantziazio-iturri erabiliko diren, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzearen baldintzapean. Halaber, artikulua dio printzipio hauen arabera kudeatu behar direla diru-laguntzak: publikotasuna; gardentasuna; lehia; objektibotasuna; berdintasuna eta diskriminaziorik eza; efikazia, administrazio emaileak finkatutako helburuen betetzean, eta efizientzia, baliabide publikoen esleipen eta erabileran.

Ondorioz, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen politika planifikatzeko tresna izango da plan hau. Izan ere, erakundeak, diru-laguntzak emanaz, helburu hauek lortu nahi ditu: sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, izatezko eta zuzenbidezko berdintasuna bete-betean lortzeko dauden oztopoak kentzea, eta sexuan oinarritutako diskriminazio modu oro deuseztatzea.

Plan hau prestatzeko, jomuga diren helburu edo interes publikoak lortzeko zer bide dauden aztertu da eta planaren indarraldian (2019-2021) horretarako dauden baliabideak erkatu dira.

Era horretan bermatuko dugu eraginkortasuna eta efizientzia areagotzea eta jardun-eremu honetan gardentasuna indartzea.

Halaber, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren gainerako plangintzara nola biltzen den aztertu eta gero, zera erabaki da: 2018ko ekainaren 19an onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren gehigarri gisa egituratzea.

Lau arlotan jartzen du arreta Diru-laguntzen Plan Estrategikoak: elkartegintzaren bidez, emakumeen ahalduntzea sustatzea; planen bidez, erakunde publiko eta pribatuetan berdintasuna sustatzea eta ezartzea; emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea, sensibilizaziorako jarrerak sortzen dituzten erakunde eta elkarteei zein sexu-esplotaziorako



gizakien salerosketaren biktima izan diren emakume eta neskei arreta eta laguntza ematen dieten erakunde eta elkarteei lagunduta; eta, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko, azterlanak eta ikerketa sustatzea.

Gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 5. artikuluko k) eta m) letretan, 24. artikuluko 3. paragrafoan eta 40. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa ere betetzen da.

Hala ere, ohartarazi behar da plana programatikoa dela, ez arautzailea, eta, beraz, haren edukiak berez ez duela sortzen ez eskubiderik, ez betebeharririk. Ondorioz, plana eraginkorra izan dadin, diru-laguntzen hainbat ildo abiarazi behar dira, ekitaldi bakoitzean erabilgarri dagoen aurrekontua kontuan hartuta, besteak beste.

2. Plana zer erakundetara aplikatu den eta zenbat iraungo duen

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, zeinak Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onartzen baitu, plan sektorialen eremua arautzen du 11. artikuluan.

Erakunde-esparruari dagokionez, artikulua dio, arau orokor gisa, plan bat onartuko dela ministerio bakoitzeko (Autonomia Erkidegoan, sail bakoitzeko), zeinetan jasoko baitira diru-laguntzak, bai haren organoenak, bai hari lotutako organismoenak eta gainerako erakunde publikoenak. Hala ere, bada arau orokor horren salbuespenik; izan ere, agindu beraren 2. paragrafoak dio plan estrategiko bereziak onar daitezkeela, baldin eta ministerioaren eremuarenak baino txikiagoak badira eta duten garrantziagatik bereiz garatu beharrekoak badira; horretaz gainera, baterako plan estrategikoak ere egin daitezke, baldin eta ministerio batek baino gehiagok edo ministerio horietakoak ez diren beste organismo batzuek kudeatzen badituzte.

Bada, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen espezifikotasuna eta ibilbidea ikusita, plan estrategiko propio bat onartzea komeni da. Horrela, plan honetan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen hainbat arlotako diru-laguntzak jaso dira, 2019tik 2021era bitartekoak, hain zuzen. Hauek dira norgehiagoka bidez emango direnak:

- Lankidetzaren Instituzionaleko Arloa. Toki-erakundeei ematen dizkie diru-laguntzak, honako hauek egiteko: berdintasun-diagnostikoak eta -planak, diagnostiko eta plan sektorialak edota estrategikoak, eta indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta-protokoloak, eta haiei dagozkien ebaluazioak.
- Azterketa, Dokumentazio eta Plangintzako Arloa. Pertsona fisikoei ematen dizkie diru-laguntzak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ikertzeko.
- Programak eta Prestakuntza Arloa. Diru-laguntzak ematen dizkie emakumeen elkarteei eta beste antolakunde batzuei, elkartegintza sustatzeko eta emakumeek eremu guztietan parte har dezaten bultzatzeko, eta enpresei, berdintasunerako planak eta



diagnostikoak egin ditzaten, eta, horretaz gainera, sari bat kudeatzen du, emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisikoen edo juridikoen (publiko edo pribatuen) jarduera publikoki nabarmentzeko eta aitortzeko.

- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Arloa. Elkarteei eta beste antolakunde batzuei ematen dizkie diru-laguntzak, emakumeen aurkako jokaera bortitzak prebenitzeko eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima izan diren emakume eta neskei arreta eta laguntza emateko. Pertsona fisikoei ere ematen dizkie laguntzak, emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko unibertsitate-master ofiziala egiteko.

Iraupenari dagokionez, aipatu erregelamenduaren 11.4 artikulua dio plan estrategikoetan hiru urterako aurreikuspenak jasoko direla, non eta, dagokion sektorearen izaera berezia dela-eta, beste iraupen bat ezartzea komeni ez den. Kasu honetan, bada inguruabar berezi bat; alegia, badagoela plan estrategiko sektorial bat –hots, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana– 2021era arte indarrean.

3. Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen ildoak

3.1 Ardatz estrategikoak

Sarreran adierazi bezala, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legeak helburu hauek ditu: sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea, izatezko eta zuzenbidezko berdintasuna bete-betean lortzeko dauden oztupoak kentzea, eta sexuan oinarritutako diskriminazio modu oro deuseztatzea.

Orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak lau ardatz ezartzen ditu berdintasun-arloan esku hartzeko: gobernu ona, ahalduntzea, ekonomia eta antolaketa sozialaren eraldaketa eta emakumeen aurkako indarkeriaren desagertzea.

Ondorioz, ardatz estrategikoak helburu orokor eta esku hartzeko ildo horien barruan kokatzen dira.

3.2 Norgehiagoka araubideko diru-laguntzen ildoak.

Erantsitako tauletan, datozen bi urteetan norgehiagoka bidez emango diren diru-laguntzen ildoak ageri dira.



Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 22. artikuluan, diru-laguntzak emateko prozedurak ezartzen dira. Prozedura arrunta norgehiagoka-araubidearena da: aurkeztutako eskaerak alderatu ondoren ematen dira diru-laguntzak, eskaeren artean lehentasun-ordena ezartzeko, oinarri arautzaileetan eta deialdian finkatutako balorazio-irizpideen arabera, eta, irizpide horiek aplikatuta, diru-laguntza balorazio handiena lortu dutenei esleitzeko, deialdian finkatutako mugara iritsi arte, erabilgarri dagoen kredituaren barruan.

Salbuespen gisa, baldin eta oinarri arautzaileetan hala aurreikusten bada, organo eskudunak diru-laguntzetarako jarrita dagoen zenbateko orokor maximoa hainbatu dezake diru-laguntzen onuradunen artean. Sistema horren arabera emango dira 3.2.4 ataleko diru-laguntzak.

3.2.1

2019KO AURREKONTU-PROIEKTUA:
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALENTZAKO ETA UDALAZ GAINDIKO LURRALDE-ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK, DIAGNOSTIKOAK, BERDINTASUN-PLANAK ETA GENERO-INDARKERIAREN ARLOKO TOKIKO PROTOKOLOAK EGITEKO. 2019: 360.000 € (47 3223 01 42201 001)
Xedea: 1. -- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18ko 4/2005 LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA, EGITUREN SENDOTZEA ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA.
Ekintza: 1.8. -- Deialdia egitea udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateei diru-laguntzak emateko, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak egin eta/edo planak egin eta ebaluatu ditzaten, eta diru-laguntza horiek ebaluatzea eta ematea.
Adierazleak: <ul style="list-style-type: none">- 33. -- Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko edo planak egiteko eta ebaluatzeko udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateei diruz lagundutako proiektuen kopurua edo emakumeen aurkako indarkeriaren arloko tokiko protokoloen kopurua. (AURREKONTU-EKITALDIA)- 30. -- Udalerrri onuradunen kopurua, udalerrri txikietan berdintasun-politikak garatzeko.
BERDINTASUNERAKO VII. PLANA (2018-2021).
HELBURU ESTRATEGIKOA:
I. PROGRAMA: KONPROMISO POLITIKOA (zuzenean gehien inplikaturik daudenak soilik)
BG3. BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA ETA HORREN EBALUAZIOA AREAGOTZEA ETA HOBETZEA BG3.1. Berdintasunerako plan bat duten erakunde publikoen kopurua handitzea. Adierazleak: <ul style="list-style-type: none">- Berdintasunerako plana indarrean duten toki-erakundeen kopurua, udalerrien tamainaren eta gauzatzeko moduaren arabera (banaka edo elkarlanean).- Berdintasunerako plana duen udalerrri batean bizi den EAeko biztanleriaren ehuneko.- Plangintza-prozesuak hasi dituzten edo Europako Gutuna sinatuz 5 urtetan horiek hasteko konpromisoa hartu duten toki-erakundeen kopurua.
BG4. BERDINTASUNERAKO UNITATE ADMINISTRATIBOAK SORTZEA ETA INDARTZEA BG4.3. Berdintasunean trebatutako teknikariak dituen unitate espezializatuak duten sailen, erakunde autonomoen eta Eusko Jaurlaritzari atxikitako erakunde publikoen kopurua handitzea. Adierazleak: <ul style="list-style-type: none">- Berdintasunerako unitate edo teknikari espezializatuak dituzten toki-administrazioen kopurua.- Berdintasunean soilik eta lanaldi osoz lanean diharduten teknikariak dituzten udalerrien ehuneko.
IV. PROGRAMA: KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA
BG13. BERDINTASUNERAKO KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA INDARTZEA BG13. 4. -- Berdintasunerako berariazko koordinazio-egiturak dauzkaten erakunde publikoen kopurua handitzea. Adierazleak: <ul style="list-style-type: none">- Berdintasunerako berariazko koordinazio-organoetan parte hartzen duten toki-erakunde publikoen kopurua.

3.2.2

2019KO AURREKONTU-PROIEKTUA:
ENPRESA ETA ERAKUNDE PRIBATUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK, AHOIKULARITZA-ENPRESA HOMOLOGATUAK KONTRATA DITZATEN, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA ETA BERDINTASUN-PLANA EGITEKO. 2019: 80.000 € (47 3223 01 45200 001)
Xedea: 4. -- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOEKIN JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNA LANTZEKO.
Ekintza: 4.3. -- Gizarte-antolaketa erantzukidea 4.3.1 Enpresa eta erakunde pribatuetan berdintasun-politikak gara daitezen sustatzea, aholkularitzaren, prestakuntzaren, laguntza ekonomikoen eta aitorten sozialaren bidez Adierazlea: - 13-18, Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko enpresei eta erakunde pribatuei emandako diru-laguntzen kopurua.
BERDINTASUNERAKO VII. PLANA (2018-2021).
HELBURU ESTRATEGIKOA: II. ARDATZA. EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO.
3. PROGRAMA: BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA 3.4. -- Antolaketaren eta enpresaren kultura berdintasunarekin parekatzea. 3.4.1 Kultura eta enpresa-praktikak berdintasunerantz aldatzeko ikuspegia txertatzen duten berdintasun-planak dituzten erakunde publiko, gizarte-agente, enpresa eta erakunde pribatuen kopurua handitzea. Adierazleak: Emakunderen metodologiatik abiatuta diagnostikoak eta berdintasun-planak egin dituzten enpresa eta erakunde pribatuen kopuruaren bilakaera. Beren berdintasun-plana egiteko aholkularitza espezializatua jasotzen duten erakunde publikoen, gizarte-agenteen, enpresen eta erakunde pribatuen kopuruaren bilakaera.

3.2.3

2019KO AURREKONTU-PROIEKTUA:
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI BURUZKO IKERKETA-BEKAK (HIRU). 2019-2020 aldia. 2019 23.333 €. Konpromiso-kreditua: 2020: 46.666 € (47 3223 01 45301 002)
Xedea: 1. -- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18ko 4/2005 LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA, EGITUREN SENDOTZEA ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA.
Ekintza: 1.13. -- Generoaren arloko prestakuntza bultzatzea, eta prestakuntzaren eta ikerketaren arloan genero-ikuspegia sar dadin bultzatzea. Adierazlea: - 3 Ikerketa-beken kopurua
BERDINTASUNERAKO VII. PLANA (2018-2021).
GOBERNU ONA BG.6. HELBURUA. GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA ESTADISTIKETAN ETA IKERKETETAN.

Ekintza: Berdintasunaren arloko ikerketa sustatzeko beketarako deialdia egitea 2019. urterako, eta horiek esleitzea.

Adierazleak:

Aurkeztutako eskabide kopurua

- Emandako beka kopurua

Zuzeneko onuradun izan diren emakumeen eta gizonen %

3.2.4

2019KO AURREKONTU-PROIEKTUA:

IRABAZI-ASMORIK GABEKO ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK. 2019-2020 aldia. 2019. 282.000 €. Konpromiso-kreditua: 2020: 94.000 € (47 3223 01 45499 002)

Xedea: 4. -- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOekin JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNA LANTZEKO.

Ekintza: 4.2.1 Ahduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa bultzatzea, aholkularitzaren, prestakuntzaren eta laguntza ekonomikoaren bidez, elkartegintza sustatzeari begira.

Adierazleak:

- 100-140 Emakumeen elkarreei emandako diru-laguntzen kopurua.
- 100-140 Emakumeen elkarreei diruz lagundutako programen kopurua.
- 100-250 Programa bakoitzean proiektuen kopurua.
- 75 Diru-laguntza lortu duten emakumeen elkarreen %, elkarreen gidaliburuan erregistratuta dauden emakumeen elkarre guztiekiko.

Xedea: 4. -- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOekin JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNA LANTZEKO.

Ekintza: 4.2.1 Ahduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa bultzatzea, aholkularitzaren, prestakuntzaren eta laguntza ekonomikoaren bidez, elkartegintza sustatzeari begira.

Adierazlea:

- 100-140 Emakumeen elkarreei emandako diru-laguntzen kopurua

BERDINTASUNERAKO VII. PLANA (2018-2021).

HELBURU ESTRATEGIKOA: I. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

1. PROGRAMA. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALARI ETA KOLEKTIBOARI LAGUNTZEA

1.1 Giza garapen jasangarrirako emakumeek eta feminismoak duten zereginaren onarpena sustatzea.

1.1.1 Berdintasunaren arloko gizarte-aurrerapenean emakumeek eta feminismoak egindako ekarpenen agerikotasuna eta onarpena handitzea.

1.2 Emakumeen genero-kontzientzia, autoestimua eta autonomia garatzeko laguntza ematea.

1.2.1 Genero-desberdinkeriek eta -diskriminazioek beren bizitzetan duten eraginaz jabetzen diren eta trebakuntza-prozesuen bidez beren autoestimuan eta autonomian aldaketak bultzatzen dituzten emakumeen kopurua handitzea.

1.2.3 Beren herritar-eskubideak ezagutzen eta horiek eraikitzen parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea.

Adierazleak

Berdintasunaren eta ahduntzearen arloan prestakuntzako eta trebakuntzako prozesu baten ondorioz beren autoestimuan eta autonomian aldaketak hauteman dituzten emakumeen ehunekoaren hazkundera.

Genero-ikuspegia duen trebakuntza-prozesu baten ondorioz beren herritartasun-eskubideak ezagutzen eta aintzat hartzen dituzten emakumeen kopuruaren hazkundera.

Beren herritartasun-eskubideak garatzeko eta finkatzeko erakunde publikoen guneetan parte hartzen duten emakumeen kopuruaren hazkundera (Emakunderen Aholku Batzordea, berdintasunerako kontseiluak

eta batzordeak eta abar).

2. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA.

2.1. -- Gizarte- eta herri-mugimenduetatik berdintasuna sustatzea.

2.1.1 Emakumeen berdintasuna lortzearen alde lan egiten duten emakume-elkarteen kopurua handitzea.

2.3. -- Erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan emakumeen presentzia eta eragina handitzea, antolamendu-kulturan berdintasunaren aldeko aldaketak sustatuz.

2.3.3 Elkarte-mugimenduko, irabazi asmorik gabeko erakundeetako, erakunde politikoetako, sindikatu etako eta enpresa-erakunde etako erabaki postuetan eta guneetan dauden emakumeen kopurua handitzea.

2.3.4 Erabakiak hartzeko postuetan emakumeen eragina handitzera bideratutako babes- eta trebakuntza-programak ugaritzea.

Adierazleak:

Emakunderen diru-laguntzen deialdien bidez diru-laguntza jasotzen duten erregistratutako emakumeen elkarte eta federazioen ehunekoaren bilakaera.

Lehen aldiz Emakunderen diru-laguntza jaso duten emakumeen elkarten kopurua, elkarte-motaren arabera.

Erabakiak hartzeko postuetan emakumeen eragina handitzera bideratuta dauden eta Emakunderen diru-laguntzen deialdietan parte hartzen duten proiektuen ehunekoa.

3.2.5

2019KO AURREKONTU-PROIEKTUA:

GENERO-INDARKERIA PREBENITZEAREN ETA HARI BURUZ SENSIBILIZATZEAREN ARLOKO EKIMENAK SUSTATZEN DITUZTEN ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK. 2019: 180.000 €. Konpromiso-kreditua: 2020: 60.000 € (47 3223 01 45499 009)

Helburua: 4. -- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKO EKIN JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKO ETAN BERDINTASUNA LANTZEKO.

Ekintza: 4.3. -- Emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerraraztea. 4.3.2 Gizarteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen parte har dezan sustatzea, emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sensibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei diru-laguntzak emateko deialdien bidez. Horretaz gainera, indarkeriaren biktima izan diren emakumeei egindako kaltea errepara dadin sustatzea.

Adierazlea:

40 Diru-laguntza lortu duten emakumeen elkarten %, elkarten gidaliburuan erregistratuta dauden emakumeen elkarte guztiekiko.

BERDINTASUNERAKO VII. PLANA (2018-2021).

HELBURU ESTRATEGIKOA: -III. Ardatza, Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak:

6. PROGRAMA: SENSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

6.1 Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea.

6.1.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde dauden eta hori sustatzen duten pertsonak gero eta gehiago izatea, batik bat adingabeez arduratzen direnak, edo adingabeentzako eredu direnak.

6.1.2 Pertsonak euren sexuaren arabera maila handiagokoak edo txikiagokoak direla adierazten duen irudi eta eduki mediatiko oro kentzea, baita pertsonak sexu-objektu huts bezala

- aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edota bultzatzen dutenak ere, hedabideetan agertzearen ondorioz berriz biktimizatzea saihestuz.
- 6.1.3 Emakumeen kontrako indarkeriaren informazio-trataera hobetzea, genero-desberdintasuna oinarrizko elementu gisa eta emakumeak borrokaren eragile aktibo gisa erakuts daitezen.
- 6.1.4 Desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura ikusarazten duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten edo hura prebenitzeko ahaleginak egiten dituzten eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea sustatzen duten pertsonen kopurua areagotzea; batez ere, mutilena eta gizonena.
- 6.1.5 Emakumeen aurkako indarkeria-motei eta horiek desberdinkeriarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzea, batik bat indarkeriaren modu zorrotz eta ezkutukoenei buruzkoa.
- 6.2 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.
- 6.2.1 Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea, EAEn gertatutako emakumeen kontrako indarkeria kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta gai horretan parte-hartze publikoa hobetzeko.
- 6.2.2 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eta haren adierazpenei buruzko jakintza hobetzea.
- 6.2.3 Ez zaintzearekin lotutako emakumeen aurkako indarkeria-motak aztertzea, bereziki adineko emakumeetan eta dibertsitate funtzionala dutenetan, hala familian nola erakundeetan.
- 6.2.4 Indarkeriaren kontzeptualizazioari eta esku-hartzeetan horrek dituen ondorioei buruzko hausnarketa bultzatzea, indarkeria-mota berrietan arreta berezia jarritz.
- 6.2.5 Bermatzea emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalen prestakuntza jasagarria, nahikoa eta eremu eta ardura-maila guztietara egokitutakoa izatea.
- 6.2.6 Beren esku-hartzean emakumeen ahalduntze pertsonala eta kaltea konpontzearen kontzeptua txertatzeko behar besteko trebakuntza duten profesionalen kopurua handitzea.
- 6.3 Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta sendotzea.
- 6.3.1 Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko gazteekin egiten den lana ugaritzea.
- 6.3.2 Emakumeen genitalen mutilazioaren eta praktika kulturekin lotutako beste indarkeria-agerpen batzuen (adibidez, nahitaezko ezkontzak, behartutako abortuak eta antzuteak eta ustezko ohorearen izenean egindako delituak) prebentzioa sustatzea.
- 6.3.3 Dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren prebentzioa handitzea.
- 6.3.4 Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko prebentzio- eta arreta-programen eta -neurrien eraginkortasuna hobetzea.
- 7. PROGRAMA: KALTEA DETEKTATZEA, ARTATZEA ETA KONPONTZEA.**
- 7.1 Emakumeen aurkako indarkeriaren antzemate goiztiarra handitzea
- 7.1.1 Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarrean era proaktiboan eta ezarritako protokoloen arabera jardungo duten profesionalak gehitzea (hezkuntza-, osasun-, polizia-, epaitegi-, lan- eta gizarte-sisteman).
- 7.1.2 Esku-hartzeko eremu guztietan indarkeriaren detekzio goiztiarra handitzea, indarkeria psikologikoan arreta berezia jarritz.
- 7.1.3 Informazio egokia jasotzen duten emakume biktimen kopurua handitzea, arreta integraleko prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren bere itxaropenei egokitutako erabakiak hartu ahal izan ditzaten.
- 7.1.4 Edozer motatako indarkeria jasan duten emakumeak, zerbitzuak eta baliabideak goiz erabiltzea erabakitzen dutenak, gehitzea, zerbitzuak eta baliabideak erabiltzeko zailtasun handienak dituztenengan arreta berezia jarritz, haienzako informazioa areagotuz eta eskuragarriago jarritz.
- 7.2 Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala bermatzea, ahalduntzearen ikuspegitik, esku-hartze horretan nazioarteko estandarrekin bat eginez.
- 7.2.1 Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko baliabideen kalitatean, sarbidean eta hornikuntzan lurraldeen eta udalen arteko aldeak murriztea, batik bat landa-eremuko udalerrietan.
- 7.2.2 EAEn dauden berariazko baliabide eta zerbitzuek gizakien salerosketaren biktimei direla-eta artatzen dituzten emakumeen eta neskatuen kopurua handitzea.
- 7.2.3 Beren lantokian sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako prebentzio- eta laguntza-protokoloen estaldura duten pertsonen kopurua areagotzea.
- 7.2.4 Arriskuan dauden taldeetan egoteagatik sortutako egoerei erantzuteko behar adinako baliabideak dituzten arreta-zerbitzuak gehitzea, ikuspegi interseksionaletik.
- 7.2.5 Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei diren seme-alaben berariazko premiak betetzeko baliabideak dituzten arreta-zerbitzuen kopurua handitzea, ikuspegi interseksionaletik.
- 7.2.6 Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen premia ekonomikoen estaldura bermatzea, haien izapideak arinduz.
- 7.3 Kaltearen erreparazio indibidual eta kolektiborako eskubidea bermatzea.
- 7.3.1 Biktimak eta haien seme-alabak erabat osatzen laguntzeko baliabide publikoak ugaritzea, haietako bakoitzaren eta indarkeriak haiengan dituen ondorioen aniztasuna onartuz.
- 7.3.2 Emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespena, biktimenganako errespetua –haien ahotik kontatuz, egia zabaltzen dela bermatzeko– eta bizitakoaren gizarte-onarpenera –berriz biktimizatzea saihestuz– adierazten duten ekintza publikoen kopurua handitzea.
- 7.3.3 Kaltea errepika ez dadila bermatzeko formulak aztertzea, arreta eragilean jarritz, emakume guztiek indarkeriarik gabeko bizitza izatea bermatzeko.
- 7.3.4 Indarkeriak biktimari eragin dizkion ondorio guztiak kontuan hartuz, neurriko kalte-ordain ekonomikoa jasotzeko eskubidea onartzea.

2019KO AURREKONTU-PROIEKTUA:	
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN ESKU HARTZEARI BURUZKO UNIBERTSITATE-MASTER OFIZIALA EGITEKO LAGUNTZAK. 2019: 19.683 €. Konpromiso-kreditua: 2020: 6.561 € (47 3223 01 45301)	
<p>Helburua: 1. -- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/005 Legearen aplikazioa sustatzea, eta plangintza, egituren sendotzea eta berdintasunerako gobernantzaren hobekuntza bultzatzea.</p> <p>Ekintza: 1.13. Generoaren arloko prestakuntza bultzatzea, eta prestakuntza eta ikerketan genero-ikuspegia sar dadin bultzatzea.</p> <p>Adierazlea:</p> <p>15 Emakumeen aurkako indarkerian esku-hartzeko masterreko ikasleei emandako laguntzen kopurua.</p>	
BERDINTASUNERAKO VII. PLANA (2018-2021).	
HELBURU ESTRATEGIKOA: III. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA	
6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA	
6.1	Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea.
6.1.1	Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde dauden eta hori sustatzen duten pertsonak gero eta gehiago izatea, batik bat adingabeen arduratzen direnak, edo adingabeentzako eredu direnak.
6.1.2	Pertsonak euren sexuaren arabera maila handiagokoak edo txikiagokoak direla adierazten duen irudi eta eduki mediatiko oro kentzea, baita pertsonak sexu-objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edota bultzatzen dutenak ere, hedabideetan agertzearen ondorioz berriz biktimizatzea saihestuz.
6.1.3	Emakumeen kontrako indarkeriaren informazio-trataera hobetzea, genero-desberdintasuna oinarrizko elementu gisa eta emakumeak borrokaren eragile aktibo gisa erakuts daitezela.
6.1.4	Desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura ikusarazten duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten edo hura prebenitzeko ahaleginak egiten dituzten eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea sustatzen duten pertsonen kopurua areagotzea; batez ere, mutilena eta gizonena.
6.1.5	Emakumeen aurkako indarkeria-motei eta horiek desberdinkeriarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzea, batik bat indarkeriaren modu zorrotz eta ezkutukoenei buruzkoa.
6.2	Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.
6.2.1	Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea, EAEn gertatutako emakumeen kontrako indarkeria kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta gai horretan parte-hartze publikoa hobetzeko.
6.2.2	Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko eta haren adierazpenei buruzko jakintza hobetzea.
6.2.3	Ez zaintzearekin lotutako emakumeen aurkako indarkeria-motak aztertzea, bereziki adineko emakumeetan eta dibertsitate funtzionala dutenetan, hala familian nola erakundeetan.
6.2.4	Indarkeriaren kontzeptualizazioari eta esku-hartzeetan horrek dituen ondorioei buruzko hausnarketa bultzatzea, indarkeria-mota berrietan arreta berezia jarritz.

3.2.7

2019KO AURREKONTU-PROIEKTUA:	
BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUNDE SARIA. 2019 14.400 €. (47 3223 01 45301 001)	
<p>Xedea: 4. -- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOekin JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNA LANTZEKO.</p> <p>4.1. -- Balioak aldatzea.</p> <p>Ekintza: 4.2.6 Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak eta beste ekintza batzuk egitea eta/edo horietan laguntzea.</p> <p>Adierazleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1 Emakunde Sarirako 2019ko deialdia. - 1 Sentsibilizazio-ekintzen kopurua (Berdintasunaren aldeko 2018ko Emakunde Saria ematea). 	
BERDINTASUNERAKO VII. PLANA (2018-2021).	
HELBURU ESTRATEGIKOA: I. ARDATZA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	

1. PROGRAMA. EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALARI ETA KOLEKTIBOARI LAGUNTZA

1.1 Giza garapen jasangarrirako emakumeek eta feminismoak duten zereginaren onarpena sustatzea.

1.1.1 Berdintasunaren arloko gizarte-aurrerapenean emakumeek eta feminismoak egindako ekarpenen agerikotasuna eta onarpena handitzea.

Adierazleak

- Emakumeek berdintasunaren arloko gizarte-garapenean egindako ekarpenak hedatzen, agerian jartzen eta/edo onartzen dituzten sarien eta lehiaketan kopuruaren hazkundea.